Modèle CCYC : ©DNE
**Nom de famille** *(naissance)* :
*(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)*
**Prénom(s) :**
**N° candidat :** **N° d'inscription :**
(Les numéros figurent sur la convocation.)
Liberté • Égalité • Fraternité
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE
**Né(e) le :** / /
1.1

# Évaluation Commune

**CLASSE :** Première

**VOIE :** ☐ Générale ☐ Technologique ☒ Toutes voies (LV)

**ENSEIGNEMENT : Basque**

**DURÉE DE L'ÉPREUVE :** 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2** LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 6 « Innovations scientifiques et responsabilité »**

**CALCULATRICE AUTORISÉE :** ☐Oui ☒ Non

**DICTIONNAIRE AUTORISÉ :** ☐Oui ☒ Non

☐ Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

☐ Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

☐ Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

**Nombre total de pages** : 4

**Baccalauréat général et technologique**

**Basque**

**Classe de première**

**Epreuve 2 : Compréhension de l'écrit et expression écrite**

**(3e trimestre)**

| Niveau visé | Durée de l'épreuve | Barème 20 points |
|---|---|---|
| **LVB : A2-B1** | **1 h 30** | CE : 10 points<br>EE : 10 points |

L'ensemble du sujet porte sur **l'axe 6** du programme « **Innovations scientifiques et responsabilité »**

Il s'organise en deux parties :

1- **Compréhension de l'écrit**
2- **Expression écrite**

## 1- Compréhension de l'écrit (10 points)

**Titre du document : « Birziklatzea, abantailak denontzat »**

1. Zein da artikulu honen gaia? Testuan altxa itzazu garrantzitsuak diren hiruzpa lau elementu.

2. Zein lotura du testu honek « Asmakuntza zientifikoak eta erantzunkizuna » ardatzarekin ?

Birziklatzea, abantaila denontzat

**Lehen, zaborra poltsa bakarrean jasotzen zen. Orain, aldiz, dena bereizi egiten dugu etxean: zabortegia ematen du gure etxeak. Gainera, gauza batzuk gure kalean bota ditzakegu, baina beste batzuk uzteko auzoan turismoa egin behar dugu. Ez al digute gehiegi eskatzen agintariek?**

Tona bat paper birziklatzeak hamazazpi zuhaitz salbatzen ditu; eta, horrez gain, 26.500 litro ur, orduko 4.200 kilowatt (familia bakarreko etxea sei hilabetez berotzeko

behar den energia) eta ia 1.500 litro olio aurrezten ditu eta 27 kilo poluitzaile airera igortzea saihesten du.

Ez da gauza berria: birziklatzeak abantaila-piloa ditu. Zakarrontzira botatzen dugun gehiena birzikla daiteke; baina horren atzetik ahalegin asko egin behar dira.

Papera, adibidez, etxean bertan birzikla daiteke; dena dela, ez da izango dendan erositakoa bezalakoa. Hori paperarekin ez ezik, beste edozein materialekin ere gertatuko da. Hainbat talde ekologistek, ordea, birziklatzeari buruzko beste ideia bat indartu nahi dute: oinarrizko birziklatzea berrerabiltzea da.

Ia material guztiak birzikla daitezke: papera, beira, metala, plastikoa…; baita etxeetako gailu elektrikoetakoak ere. Baina material bakoitza birziklatzeko, horri dagokion teknika erabili behar da.

PAPERA

Gaurko gizartean paper asko erabiltzen da. Izan ere, papera gizartearen handikeriaren neurria izan daiteke. Zaborraren zatirik handiena, % 40 inguru, papera da. Horrek esan nahi du kontsumoa ere izugarria dela. Nondik dator kontsumo hori guztia hornitzeko lehengaia? Urtetan, basoak* ustiatu eta hazkuntza azkarreko* zuhaitzak aldatu, beste biderik ez zen jorratzen.

Baina azken hamarkadetan papera birziklatzen hasi da. 1994an Estatu Batuetan, 2000ko paperaren % 50 birziklatzea finkatu zen helburu gisa. Helburu hori ez da bete, baina % 45 inguru birziklatzen denez, kanpainak arrakasta izan duela esan daiteke. Europan proportzio hori handiagoa da, eta Japonian guztietan handiena (1996an %60 inguru birziklatzen zuten). Baina zerk egiten du hain zaila eta garestia birziklatzea?

Prozesuaren ikuspuntutik, paperarekin batera substantzia asko izaten duela hartu behar da kontuan. Horietatik ugariena tinta da, baina ez bakarra. Birziklatzearen lehen urratsa tinta kentzea da; horretarako ura erabiltzen da. Prozesu horretan sortutako materiari orea* deritzo, eta papera berregiteko lehengaia da.

Baso : oihan / Azkar : laster / Ore : pâte

Elhuyar aldizkaria
2002/06/01, Roa Zubia Guillermo



C1CBASQ03492

## 2- <u>Expression écrite</u> (10 points)

Bi gai hauetarik **bat** hautatu eta **euskaraz** 12 bat lerroko idazlana egin.

**<u>Sujet A</u>**

Gaur egun birziklatzea garrantzitsua eta beharrezkoa omen da.

Zer iritzi duzu baieztapen horretaz ?

**<u>Sujet B</u>**



1. Zure ustez, Euskal Herrian jendeak papera, plastikoa, beira… birziklatzen ote ditu ? Zure inguruan ikusten duzuna, zuk eta zure hurbilekoek egiten dutena azalduko duzu.